

Euskal Romeo eta Julieta

Ikasbiletik hartua eta IKAAn moldatua

Zenbat aldiz gertatu ote da, hainbat arrazoi tarteko, gurasoek ez onartzea seme-alaben ezkongaiak? Beharbada horrelako ezkongai edo amorante ezagunenak Romeo eta Julieta dira, baina Euskal Herrian, Gipuzkoan zehazki, baditugu gure Romeo eta Julieta ere. Baina nola heldu ziren Beasainera euskal amorante horiek? Isabel eta Pedro, bi gipuzkoarren benetako maitasunezko historia ezagutu nahi baduzue, entzun hurrengo audio-pasarteak.



Euskadi Irratiko Baipasa saioan Aitziber Makazagari egindako elkarrizketa entzun beharko duzu. Beasaingo Igartza monumentu-multzoko arduraduna dugu, eta audioan kontatzen dizkigu Isabel eta Pedroren gorabeherak. Audioa entzun ondoren lotu ideiak eta pertsonaiak.

	Isabel	Pedro	Ana
Azkoitiarra zen.			
Ezkondu egin zen.			
Ume zela hil zitzaion aita.			
Mutrikun bizi izan zen.			
Bitartekari lanak egin zituen.			
Euskara zekien.			
Oinordeko bakarra zen jaiotzetik eta ezkutuan ezkondu aurretik.			
Epaiketan ez zutela ihes egitera behartu adierazi zuen.			
Ez zen zahartzarora heldu.			
Beasaingo Igartza monumentu-multzoko jabea izan zen.			
Beasaingo Igartza monumentu-multzoan aldaketak egin zituen.			

ERANTZUNAK

	Isabel	Pedro	Ana
Azkoitiarra zen.		X	
Ezkondu egin zen.	X	X	
Ume zela hil zitzaion aita.	X		
Mutrikun bizi izan zen.	X		X
Bitartekari lanak egin zituen.			X
Euskara zekien.	X	X	
Oinordeko bakarra zen jaiotzetik eta ezkutuan ezkondu aurretik.	X		
Epaiketari ez zutela ihes egitera behartu adierazi zuen.	X		
Ez zen zahartzarora heldu.		X	
Beasaingo Igartza monumentu-multzoko jabea izan zen.	X	X	
Beasaingo Igartza monumentu-multzoan aldaketak egin zituen.	X		